

# Gabi etxean nahi dugu! Errepresio gehiagorik ez!

Duela aste batzuk, Gabi Basañez eta ASKAPENA erakunde internazionalistaren beste kide batzuk atxilotu eta espetxeratu zituzten. Gabik Sopelarekin lotura handia du.

Euskal Herrian benetako demokrazia eta bakea lortzeko bide berriak zabaltzen ari dira. Beraz, distentsiorako eta ezberdinen artean zubiak eraikitzeko unea da.

Baina tamalez, egoera itxaropentsu eta berrien aurrean Espainiar Gobernutik errepresioarekin erantzuten ari dira. Gero eta alderdi eta eragile gehiagok normalizaziorantz urratsak ematen ari direnean, probokazioak ere ugaltzen ari dira.

Eskubide guztien urraketarekin amaitzea jendarte gehiengoaren helburua da eta Gabi Basañezekin eta beste askorekin egiten ari direna ez da bateragarria.

Gabi eta bere familia indarkeri instituzionalaren biktimak dira. Gabi Sopelan aspaldidanik ezagutzen dugu eta badakigu bere lan politikoa eta soziala erabat zilegia, publikoa eta demokratikoa dela.

Gabik, Sopelan eta Euskal Herrian, euskararen alde lan egin du, internazionalismoaren alde ekimen publikoak eta erabat demokratikoak burutu ditu. Gabik gure itsasoko olatuekin gozatu egin du. Gabik gure jaietan beti bere ekarpen alaia eskaini digu, bai Olentzaroa prestatzen, bai herriko jaietan bere soinuari eragiten edota ikastolako aita bezala bere neurriko ekarpena egiten. Hori dena ez da delitua. Hori egiteagatik ezin dute espetxeratu.

Gaur hemen agertzen garen herritarrok, pentsamolde ezberdinekoak gara baina Gabi ezagutzen dugu eta berari eta beste askori egindakoa ez dugu ontzat ematen.

Euskal Herrian beste aro bat zabaltzeko aukera garbia somatzen dugu eta horrek ilusioz betetzen gaitu. Denok era eraikitzailean gure ekarpena egin behar dugu eta gure herrian gertatzen diren urraketa guztien amaiera ikusi nahi dugu. Gure herrian dauden egitasmu politiko guztiak berdintasunean eta benetako demokraziaren arauen arabera leia egiteko aroa ikusi nahi dugu. Indarkeri guztiak iraganeko kontuak izatea desiratzen dugu. Ziur gaude horretan ere Gabiren lagunak bagarela.

Hori dela eta, zerbait egin behar dugula deliberatu dugu eta "Gabi etxean nahi dugu. Errepresio gehiagorik ez!" lelopean Sopelan mobilizazio bat burutu nahi dugu.

Mobilizazioa, azaroaren 28an eguerdiko 13:00etan, Sopelako Udaletxetik abiatuko da eta bertan parte hartzeko Sopelako herri guztiari deia egiten diogu.

Etorkizunaren alde: Eskubide guztiak, proiektu guztiak.

Taldea, Alderdi, Erakundea edo pertsonaren izena / Grupo, Partido, Organización o nombre personal	Pertsonalki sinatu baduzu, zeren partaidea zara (nongo irakasle, aita-ama, surflaria, euskaltzalea,...) / Si firmas a nivel personal poner a que sector u organización perteneces (profesora de, aita-ama deikastola, surf, euskaltzalea, de que organización,...)	Sinadura edo zigilua / Firma o sello